

ZER BERRI HIZKUNTZ ESKUBIDEEN ALDEKO KONPROMISOA HARTU DUTE
KULTURA MORAU TALDEAREN KONTZERTUA EZOZIKO JAİETAN

@h' p'ipilean

Soraluzeko Hamabostekaría 92. alea 2004ko ekainaren 11a

Iñaki Iñurrieta

**Ezina
ekinez
egina**





Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Mahai-jokoa + CD-ROMa

GALDERA-LASTERKETA

ELHUYAR

MAJU ROBOT SUNTSITZAILEEN AURKA

ZerNola
www.zernola.net

GIPUZKOA ZURE ESKU

Donostiaren aurretik
zein izan zen Gipuzkoako hiriburua?

Deitu 943 75 13 04ra

*Joko mundial hau
irabazi zeinke!!*



Tik, tak, tik, tak...

IRUNE ARIZNABARRETA

Logelako erlojuaren orratzen tau-padek esnatu naute bapatean. Aparailuari begirada bat eman diot eta segituan konturatu naiz orratzak urduri daudela. Eskuetan hartu dut eta orratzak lasaitu egin dira, baina ni beldur-tu.

“Irune, Irune” deiadarka ari zaizkit laurak eta badakit zergaitia.

Gaurko goiza ba mahai borobilean exerita pasako dut erlojuarekin.

Hau DNI, zenbakia, INEM –eko txartela edo gidatzeko baimena berriztea bezala da. Urtean behin birritan edo bi urtean behin ematen da.

Iritsi da ordua eta 5^a k exeri gera mahai. Orratz txikiena zuzendaritzan dago, haundiena bere laguntzailea da. Segunderua berriz prest dago gaur goizean esango diren hitz eta esanak akta batean jasotzeko eta orratz gorria alarma modadore lanean arituko da.

ERLOJUA: Lehenik eta behin argitu nahi dizugu gaurko deialdiaren zergaitia. Bizitzaren etapei eta dyarmari buruz hitzegin nahi dizugu.

Edertasuna falta zaizula eta honen aurrean zure nahi duzun erriman edo neurrian zure burua defendatu behar duzu.

“Lehenik eta behin esan behar dizuet ezentrikotasun honetan bizitzea ez dela erraza. Amaren baserrian dagoen horma erloju beltzean ikusten dut isladatuta nire izatea. Villa de Placencia de las armas koa jaitozaz, 1978. urtean jaioa Espainiar konstituzioa egin zen urte berekoa eta egunero aldean daramadan motxila ema-

kume armas josita dagoela ziurtatzen dizuet.

Gure mundutxo hau: Sistema, gizar-tea, pertsonak dirua konpetitibitatea, estetika, sexua,... bai bai... aurpegi polita bai.

Nekatuta nago edo gaude gure gizar-tea jasaten ari den zaborkeriaz.

Baina zer gertatzen da? Ez dut sines-ten edo iresten kalera jeisten naizenean inguruan ikusten dudana. Zorionean bi gehi bi lau direla ikasi nuen oraindik txikia nintzelarik eta Haritz nabarrak eta Harriak (Atxak) seaska polit batean zaintzen eta babesten naute ondora ez na-din. Bai zu bai, zuri ari naitzaizu, badaki-zu kokoteraino nagoela. Kendu aurpegian daramazun kareta. Entzun duzu!! Amaitu da joko!! Ille hori polita izan zaitezke, begi urdin liluragarriak izan ditzakezu baina ez duzu zer eginik gaurkoan idazten ari zai-zun honekin badakielako duen aberastasu-n kulturalak zu beste dimentsio bateta-tik begiratzera derrigortzen duela. Beno muxuzapia utziko dizut negar malkotxo horiek sika ditzazun. Penagarria da bai penagarria duzun adinarekin ilea perikito kolorez margotu beharra.

Orratz zuzendari jauna ustutu dut barruan neramana”.

ERLOJUA: Beno Irune gaurkoaz amaitutzat joko dugu.

Eskua luzatu diet lauri eta agurtu ondoren ekainare 11 rako egin beharrekin jarraitu dut

Besterik gabe Soralezetarrok etxeko erlojuari begirada bat ematera gonbidatzen zaituztet. **AGUR TERDI.**

Telegrapak

Kaixo irakurle. Stop. egin dogu jua-n zan aleko akatsen zerrrenda. Stop. orriko bi edo. Stop. ji,ji,ji!. Stop. pertsonak gara ez?. Stop. gainera perfekziñua hain da aspergarrixa... Stop. eta neketsua... Stop. baina aha-legenduko gara eh!. Stop. Ajenda 21 moduan (zer berrin). Stop. perfektu perfektua... Stop. ba ez... Stop. lehoia izateko buztana eta zeozer gehixao faltako jako seguruenik. Stop. eta salaketak be... Stop. perfektu perfe-tuak... Stop. ba ez... Stop. txepetx izateko luma asko faltako jakoz segu-ruenik. Stop. baina bai batean eta bai bestean. Stop. bai batarendako eta bai bestearendako. Stop. garrantzi-suena egiten doguna da azkenian. Stop. saltzen dogun diskurtso edo marketingaren gaitetik edo azpitik. Stop. naturarengatik egiten doguna!. Stop. eztabaida ona da!. Stop. ezer aurreratzen bada. Stop. erregular!. Stop. eta eskatzia libre!. Stop. eta ez emotia?. Stop. organorik ez emotia akaautakuan?. Stop. ba libre izango da baina... Stop. oso zentzuzkoa ez da behintzat!. Stop. danborradako gutunak erdera hutsian bialtzia moduan. Stop. ze... Stop. hizkuntz eskubidiak danon konpromisua dira. Stop. egin deiguzen geure. Stop. eta Mekolaldeko okupele muxuak. Stop. Litiriri holaxe jarraitzeko urte askuan. Stop. Gaztetxekueri zorio-nak atzeritarrei ahotsa emotiarren. Stop. eta ondo pasau Ezoziko jaixetan!. Stop. edo Ezoziko zelaxetan!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.

Telefonoa 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Egoitz Unamuno

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzukizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Joan zen asteazkenean Iñaki Iñurrieta (Soraluze 1953) izan genuen herrian bere lehen eleberria aurkezten, “Kuskue Tanden”.

Zorion agurrak



Iraia Intxaurre Mendizabal
4 urte
Ekainaren 9an
Zorionak txikito!!
Jarraitu beti bezain
alai ta umoretsu!
Gurasuen partetik.



Miriam eta Mete
Ekainaren 26an
Zorionak kuadrilakoen
partetik! Oso ondo pasa-
tu deizuela!



Leire Alvarez
12 urte
Ekainaren 29an
Zorionak segi horre-
la!
Jon, Urko eta
Ireneren partetik.




Mireia Lamariano
13 urte
ekainaren 21an
Jarraitu beti bezain jator.
Etxeuen partetik

Iñaki Diaz
50 urte
ekainaren 6an
Besarkada bat eta zorio-
nak bihotz bihotzez.

Etxeuen partetik.



Erik Azula
15 urte
Ekainaren 11an
Zorionak, muxu
haundi haundi bat!
Etxeuen partetik.



Ana Gil
Ekainaren 2an
Zorionak eta besarkada
bero bat.

Diaztar baten partetik.

Enaitz Diaz
19 urte
ekainaren 4an
Zorionak eta muxu
haundi bat maitia!

Etxeuen partetik.



JARDUERAK

Araba euskaraz

Arabako Ikastolen Elkarteak antolatuta, Araba euskaraz 2004 ospatuko da datorren zapatuan, ekainaren 20an, Bastidan. www.araba-euskaraz.org

Auzolandegiak

Kutxak 15 eta 27 urte bitarteko Gazteketxa txartelaren jabe diren gazteentzako auzolandegiak antolatu ditu. Informazio guztia www.begira.com, www.gazteketxa.net web guneetan edo Kutxako bulegoetan. Izen emate epea: ekainak 27.

IKASTAROAK

Glotodidaktika Ikastaroa

Euskalduntze munduan irakasle jardun nagi dutenentzat. Ekainaren 28tik uztailearen 23ra. Goizez 5 orduz (09:00-14:00). Eibarko AEK euskaltegian. (270 euro). Izena emateko epea: ekainaren 1etik 21era. (943201379)

LEHIAKETAK

Argazkiak

Irungo Argazki Elkarteak Irungo XVIII. Argazki Lehiaketa Herrikoia antolatu du. Bi gai: librea eta Irun. Bi modalitate: zuri-beltzeko argazkiak eta koloretakoak. Epea: ekainak 14

LANA

Lorazaina Bergaran

Bergarako Udalak lorategi zerbitzuko ofizial lanpostu bat betetzeko eta lorategi zerbitzurako langileen lan-poltsa osatzeko deialdia egin du. Baldintzak: Eskolatzeko Ziurtagiria edo LH1 titulua izatea. Epea: ekainak 17

Administrarien lan-poltsa Azkoitian

Azkoitiko Udalak, behin-behineko beharrak betetzeko administrarien lan-poltsa sortzeko deialdia. Zerrenda horrek hiru urteko iraupena izango du. Baldintzak: Batxilergo, LH2 edo titulu baliokidea eta euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: ekainak 21.

Atezainak Eibarren

Eibarko Udalak 3 atezain plaza betetzeko oposizio-lehiaketa antolatu du. Baldintzak: Eskolatzeko Ziurtagiria edo titulu baliokidea eta euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: ekainak 22.

jaiotakoak

Julene Moya Maqueda
Azahara Fernandez Alvarez

hildakoak

Inaxio Arizaga
Joxe Mari Urizar

Gutunak

AGENDA 21= HIPOKRESIA ???

Ekainaren 5an Ingurumenaren Munduko eguna zela eta. Debegeak eta Soralezuko udalak Debabarreneko IV. Eko-astearen barruan zenbait ekitaldi antolatu zituzten. Hauen artean; zuhaitz landaketa, kontsumo-ari buruzko kale antzerki bat, balkoi dotoreen III Lehiaketa eta Debabarreneko paisaia interesgarri buruzko gida zabaltzea. Ekitaldi hauen artean Ekainaren 6an Plaza berrian erakusketa bat antolatu zen herritarrei jakinarazteko zertan datzan Tokiko Agenda 21ren prozesua. Eguerdiko 13:30 aldera udalerriko hiru bizilagunek beraien aurpegiak berdez margoturik zituztela eta hitz batzuek esan ondoren simaurra bota zuten Plaza Berrian protesta moduan. Honetaz gain kartel batean irakurri zitekeen: "Nik maite dut ekokapitalismoa", "Agenda 21 = Hipokresia". Ekintza hauen aurrean esan beharra daukat eskubide guztia daukatela beraien eritziak kalderatzeko.

Baina "boikot" honen aurrean eta hipokritatza jotzea Tokiko agenda 21 eko prozesua ez nagoela beraiekin ados. Zeren eta udalerriri hau konprometitu dago Agenda 21eko prozesuarekin. Udalsarea 21ean ere barnerturik dago, Garapen iraunkorra bultzatzen duen udalen sarean. Beraz ingurugiro alorrean burutzen den lana hipokritatza jotzea zentzugabea ikusten dut. Azken finean sinisten dugun gauza bat bultzatzen hari gerala eta ez delako marketing estrategia huts bat. Bestalde esan beharra daukat Tokiko Agenda 21 dagokionez momentu honetan udalerriko diagnostikoa buruturik dagoela, eta udalerriko entitate sozial, ekonomiko eta kulturekin kontaktuak burutzen hari gerala jakinarazteko zertan datzan Tokiko Agenda 21. Ondoren kontaktu hauek amaituta, irailan asmoa daukagu foru soziala antolatzeko. Foru sozial hontan herritar guztien partehartzea bultzatzen dugu. Beraz hiru bizilagun hauek gonbidatzen ditut beste herritar guztiekin batera beraiek dituzten erreklamazio, gogoeta eta kritikak azaldu ditzaten. Azken finean nire helburua batzorde zabal eta partehartzaile bat bultzatzea bait da herri mailan ingurugiro alorrean. Besterik gabe agurtzen zaituztet baita animatzen ere Tokiko agenda 21an partehartza azken finean ingurugiroa denok kezkatzen gaituen gaia bait da.

Iker Aldazabal (Ingurugiro, Nekazaritza eta Hirigintzako Zinegotzia)

DESARROLLISMO TXIKITZALEA

Badirudi azken aldi oso modan dagoela EKO izatea, eta noski, enpresen, politiko eta gure kontura bizi diren gainontzeko jendilaje guzti hori ere ez da modaz kanpo geldituko: oso EKO dira. Ba begira, montaje guzti hau K.K. besterik ez da, iruzur bat. Garapen jasagarria: Ja,ja,ja. Arduratu al dira benetan amalurrak jasan dezakeena aztertzeaz. EZ NOSKI!! Agenda 21 ak dirudunen poltsikoen jasangarritasuna neurtzen du. HIPOKRITAK!! GEZURTIAK!! Oh, balkoi politak, oh zein berdeak diren gure mendiak, gure rotodak, gure semaforoak. Zein berdea den gure mundua eta zein grisa izango den seme-alabei utziko dieguna. Zoo batera joan beharko dute mantangorriak ikustera !!

EZ! EZ dugu jasangarritasuna nahi, nahikoa jasan dugu dagoeneko. Zenbat pintura berde behar dute autopista bat margotzeko? eta superprotu bat, eta AHTa, eta errazketa plantak, eta urtegiak, eta golf zelaiak. Oh, hauek bai, hauek bai berdeak.

Nazkatuak gaudе hainbeste EKO eta BIO txorradaz !! Irratia piztu eta zorioneko Y hori zein probetxugarria den entzuten dugu eguneroko. Probetxugarria norentza? Kriston txikizioa egingo dute, betiko lauren boltsikoak berdeago egoteko. Billete berdez beterik.

Bota hormigoia, bota zementua, moztu zuhaitzak eta gero eskatu gure iritzia. Balkoietak loreak ze koloretakoak izan behar diren erabakitze edo autopistako restopetan pinuak edo pagoak landatu eztabaidatzeko. Ba hemen dago mikroa, etor dadila norbait lur honetaz egin duten proiektua zein den azaltzera. DESARROLLISMO TXIKITZALEARI EZ !! AMALURRA DEFENDA DEZAGUN!! Txorrada gutxiago eta formazio gehiago, buru gehiago. Gure eskuetan dago. AMALURRA

EHNArekin bozkatu!

Hauteskunde kanpainan, Europan herri bezala agertu eta Euskal Herri bezala Europan egoteko esubidea dugula esan dute.

Herritarrok, badaukagu tresna bat; EHNA, euskal herritarrek garelako adierazteko, ez frantsesak ezta espainolak ere. Beraz, ekainak 13ko hauteskundeetan EHNArekin bozkatzera joateko gonbita egiten diot jendeari.

Era berean, mahaian egongo diren pertsonen, oztoporik ez jartzeko. Monika Muro (Udalbiltzako Zinegotzia)

Zer irizten dotsazu?

Joan zen ekainaren 2an izan zen Organu Emailearen Nazioarteko Eguna. ALCER-Gipuzkoa Giltzurrunetako Gaixoen Elkarteak "Emailerik gabe ez dago transplanterik!" lemapean, informazioa banatu eta emaile egiteko kanpaina jarri du martxan. Soraluzen larunbat honetan jarriko dute organu emaile egiteko mahaia.

Organu emaile egingo zinake? derrigorrezkoa izan bihar leuke?



David Leornado Alvarez
22 urte
elekttrizistia
Nik emongo nituzke, badao jentia ez dabena nahi baina ez dakit zergatik. Nik uste dot derrigorrezkoa ezin leikela izan baina emon bai.



Monica Rodríguez
26 urte
Dependiente
Bai noski. Ez dabena nahi izango da edo zaharrak diralako edo erlijio kontuegatik. Nik uste dot derrigorrezkoa ez dabela izan bihar, boluntarixua.



Pilar Paino Calderon
44 años Edurtzako sukaldaria
Bai, ni emailea naiz, eta ez dabena nahi igual erlijio kontuegatik izango da. Ni katolikua naiz eta ez jata inporta. Nere ustez legez jarrita egon bihar litzake ze momentu horretan familia urduri dago eta ez dau ondo pentsatzen. Gerora damutu egiten dira baina...



Urbano
52 urte
ajustadoria
Ni bai, eta uste dot jentia ados egon bihar litzakela eta organuak emon. Ez dakit zergatik dagan jentia organorik emotia nahi ez dabena. Legez egon bihar litzake jarrita.



Mikel Ballesteros
27 urte
Tornerua
Ba ez jata inoiz okurridu baina ondo dago hori. Ez dakit zergatik dagan jentia ez dabena nahi emoterik baina bakoitzak bere gorputzakin nahi dabena egiten dau.



Ana Luisa Benito
63 urte
etxeakoandria
Ni donantia naiz, eta ez dabena nahi izango da igual beldurragatik edo. Ni donantia egin nintzan igual neuk bihar nebalako, ze giltzurrun bat bakarrik daukat. Derrigorrezkoa ez, honekin bihar dana da jentia konzientzatzia.

Zuzenketa: Joan zen alean azaldu zen Izazkun Agirrek 45 urte ditu eta ez 55.

Instalazioak
Berrikuntzak


Kiru Muntaiak S.L.

Bias Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 76 99 85
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



Ingurumena zaintzearen beharraz



Istitutuko ikasleak Udaleko Batzar Aretoan galderak egiten.

Joan zen astean, Debegesak eta Udalak elkarlanean antolatutako Ekosteanen barruan ingurumenaren zainketarekin zerikusia duten hainbat ekitaldi egin ziren herrian, Agenda 21 proiektuarekin lotuta. Ekainaren 1ean Istitutuko ikasleek herriko "bizigiroa egokia" izan dadin hainbat eskari aurkeztu zituzten Udalari, besteak beste; olio erreka biltzeko zerbitzua (dagoeneko onartua dago mankomunitatean), gai arriskutsu eta altzarien bilketa zerbitzua (ostegun gauetan mankomunitatera abisatuta jasotzen omen dituzte) komun publikoen irekiera (aztertzen ari dira), txakur gorotzak biltzeko poltsak ezartzea, pila kargadore batzuk banatzea eta etxeetan zaborrak banatzeko 200 ontzi oparitzea (idea onak iruditu zitzaizkion Udalari)... Hontaz gain, ekainaren 11n zuhaitzak landatu zituzten Ezozi auzoan.

Erakusketa Ibiltaria ere izan genuen herrian Debabarreneko paisaia interesgarri buruzko gida eta informazioa banatuz. Karakate-Irukurutzeta ezagutze-



Istitutuko ikasleak Ezozi auzoko lur eremu batean zuhaitzak landatzen.



Igandean ikusgai izan zen erakusketa ibiltaria eta herritar batzuen salaketa.

ko irteera bertan behera gelditu zen eta kale antzerkia atzeratu. Balkoi dotoreen III. lehiaketarako datu biltzea ere egin da.

Bestalde, herritar batzuek, aurpegia berdez margotu eta "Txikizioa gelditu!" "Ekokapitalismoa maite dut! Agenda 21 = hipokresia" bezalako goiburuak erakutsi zituzten erakusketa ibiltariaren aurrean. Euren esanetan "Agenda 21 eta garapen jasangarria marketing hutsa besterik ez dira eta ez da benetako neurri hartzen txikizioa gelditzeko".

Parkinsoneko gaixoen lokala inauguratuta

Gaur egun hamairu bazkidek erabiltzen dute Aspargui Parkinson gaixoen senideen elkarteak Eibarko Ipurua kiroldegian duen lokala. Debabarrena osorako zerbitzua eskaintzen dute lokalean, astelehenetik barixakura, 17.00etatik 19.00etara. Besteak beste, fisioterapia eta psikologia lantzeko aukera dute hara joatea erabaki duten gaixoei. Laster hidroterapia, logoterapia, risoterapia eta garraioa gehitu nahi dute.

Horrela azaldu zuten ekainaren 1ean, modu ofizialean lokala inauguratu zutenean. Gure eskualdean 200 bat parkinson gaixo omen daude.

Informazio gehiago Udaleko Ongizitate Zerbitzuan.

Soraluzetarrak garaile



Armeria Eskolako Sarietan lehenengo sariaren irabazleak Soraluzeko BHI Institutuko hiru ikasle (Imanol Sancha, Gorka Etxabe eta Denis Garcia) izan dira "Garaje" izeneko maketa automatizatuarekin. 1.500 euro, trofeo bat eta diploma bat jasoko dituzte.



Jose Antonio S.L.
igeltzeritza

Gabolatz, 19 - Telefonoa 943 75 11 14 - 943 75 24 49
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)



Hnos. BENITO ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

JAVIER ALONSO ZELAIETA
434 ZENB.KDL

HORTZ KLINIKA
MEDIKU ESTOMATOLOGOAK



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613



EDURTZA kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko menua eta pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Hizkuntz Eskubideen aldeko konpromisoa herrian



Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak bultzatutako "Hizkuntz Eskubideak, denon konpromisoa!" kanpainari atxikimendua adieraziz, herriko hainbat elkarte eta alorretako soraluzetarrek euren eguneroko bizitzan euskararen hizkuntz eskubideak errespetatuak izan daitezzen eskatzeko kon-

promisoa hartu dute. Lehen hitza beti euskaraz egitea, hizkuntz eskubideen urraketen berri Behatokiari ematea, euskarazko zerbitzuak lehenestea, fakturak euskaraz bidaltzeko eskatzea, euskalprentsaren harpidetza bat egitea eta abar. Datozen asteetan herritar gehiagori emango zaie aukera.

Kultura aniztasuna bultzatuz

Gaztetxeak "kultura aniztasunaren eta integrazio duin baten alde"ko hitzaldi, jai eta bideo emanaldi egitarau zabala antolatu dute datozen egunetarako. Hizlariak, atzeritik etorri baina herrian bizi direnak izango dira:

TXILE ekainaren 9an, eguaztena. Migel Listin. "Acta general de Txile"

KUBA ekainaren 10ean, eguena. 19etan hitzaldia eta 19:40etan bideo emanaldia. "Muevete contra el bloqueo" 1988

EKUADOR ekainaren 14an, astelehena. 19etan hitzaldia eta 19:40an bideo emanaldia. "20 dias de noviembre"

MAROKO ekainaren 15ean, martitzena. 19etan hitzaldia eta 19:40etan bideo emanaldia. "La espalda del mundo"

AMAZONAS ekainaren 16an, eguaztena. 19etan hitzaldia eta 19:40etan bideo emanaldia.

FESTA KULTURA ANITZA ekainaren 17an, eguena. Gualdean. Jana, musika eta dantza.

BIDEOAK
Ekainaren 22an martitzena
"Palestina, cuando murio la paz"

Ekainaren 23an eguaztena
"No sin mi hija"

Gazteen sexualitateaz hitzaldia 18an

Datorren ekainaren 18an sexualitatearen gaia naturaltasunez eta umorez lantzen duen hitzaldia izango da Gaztetxean, arratsaldeko 19:00etan. Batez ere, 14 urtetik 23ra bitarteko gazteei zuzenduta dago baina edozeinek har dezake parte bertan. Pil-pilean Kultura Elkarteak gazteei zuzendutako ekimenen barruan antolatu du hitzaldia.

Kontrol salaketa Mekolaldetik



Hainbat plazentziar bizi diren Mekolaldeko dorreko etxe okupatukoek adierazi dutenez, joan zen astean, euren etxe atarira zuzenduta zegoen bideo kamara aurkitu zuten auto baten barruan. Ertzantzari abisua eman eta gertatutakoaren berri eman arren, ez omen dute inongo azalpenik jaso eta berorren berri herrian zabaldu eta salaketa jartzea erabaki dute.

UEUraiko Udalaren dirulaguntzak

Urtero moduan Soraluzeko Udalak UEUK (Udako Euskal Unibertsitate) eskeintzen dituen Udako astebeteko ikastaroetan parte hartzeko ditulaguntzak eskeintzen ditu. Udalak matrikula (egoitza ez) ordaintzeko %50eko dirulaguntza ematen du. Informazio gehiago Udaleko Euskaraz Zerbitzuan.



SAN ANDRES Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

Juan Mari Arraindegia

*Eguneroko
arraina
eta konjelatuak*

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69





Iñaki Inurrieta

idazle, ekinez egina

Joan zen asteazkenean Iñaki Inurrieta (Soraluze 1953) izan genuen herrian bere lehen eleberria aurkezten, "Kuskue Tandem".

Iñaki 1979an joan zen Donostiara bizi izatera. Urte haietan irakasle ibili zen, gero kazetari eta itzultzaile ere jardun izan du urte askoan. Azken lau urteotan Donostiako Kultura Patronatuan dihardu lanean. Eleberri honekin nahi bezin gustora idaztea galerazten zion horma zulatzea lortu omen du. Hemendik aurrera, bere bizitza literatura mundutik bideratzen ahalegindu nahi luke. Soraluzetar asko zain izango gaitu hurrengo eleberrirako.

Zela deskribatuko zenduke Kuskue Tandem?

Melville idazliak ziñuan, literaturak eleberririk badaukela zerikusixa gida turistikuekin eta kasu honetan arrazoia dauka. Protagonistak filologiako ikasle barbaro edo txeroki xamar batzuek osatzen dabena dira, pisukidiak, eta halako baten, diru pixkat etaratzeko itzultzaile lanetan hasten dira, folleto turistikoko batzuk itzultzen. Egun baten, folleto baten liburu batetik hartutako testu zati bat topatzen dabe eta hortik aurrera go-goetak egiten hasten dira.

Nahiko liburu lokala da. Danok eza-gutzen dogun inguru baten gertatzen da, Donostian. Baina loturak ditu literatura unibertsal eta mito klasikuekin.

Soraluzekin loturaren bat badauka.

Nik uste dot Plazentzia be badaola liburu honetan, ez bakarrik Donostia. Badare gauza batzuk plzentziatar batek beste inork baino hobeto entendidu leikezenak. Esaterako, ikasle talde horretako batek, Xankapok, plazentzieraz egiten dau berba. Tarteka sartzen dira berba batzuk Plazentzian erabiltzen diranak eta hemen oso garatuta daukagun ardaun kulturiakin zerikusixa daukenak. "Erroberan egin" eta bere jatorrixaren teorixia. Berbez gainera, badago imagin bat, Maristetan ikasten ibili ziranak konturatuko dirana; Maristen eskoletan zeguan kaki arboliana. "Hermanuak" ikasle oneneri eta, emoten zotsen ale bat noizian behin.

Zenbat denboran idatzi dozu?

Hasi oindala 20 urte inguru hasi nintzan asmuakin. Nahi eta ezin baten ibili naiz urte askuan, baina halako baten konturatzen zara daukazula orri pila bat eta forma emoten hasi eta zela edo hala



Igandean ikusgai izan zen erakusketa ibiltaria eta herritar batzuen salaketa.

sortzen da zeozer. Lagun bati laga notsan irakurtzeko eta harek sekulako animua emon zotan.

Noiz idazten dozu?

Azkenaldixan goizeko seirak aldiari lanera jua aurretik kafetxo bat hartu eta orduan idazten dot. Gero egunian zihar be edozein orduan akordatzen jatzu zeozer eta paper muturren baten apuntatzen dozu.

Zer bihar da idazteko?

Idazteko ez da bihar ezer berezirik. Bihar dana da, norberan esperientzia ordenatzen jakitxia. Hori eginez ikasten da. Perfekzionismua edo gehixegizko lotsa hori da idazle asko frenatzen dituana. Kritikuegia izatia txarra da.

Noiz hasi zinan zu idazten?

Lehenengo aldiz 14 bat urtekin txokolate papelian, orduan irakurtzen nittuan oesteko nobelen moduko zeozer idatzi nahixan. 19 Urtekin gauzatxuak eta 26tik aurrera serixotxuago literaturako aldizkarixetan.

Liburu bat markau zaituana?

Hamairu urtekin aman pelukerixatik harrapautako "Los hermanos Carabazon", 15 urtetik gorakuendako zan eta ez-kutuan irakurri neban. Gero Obabakoak.

Idazle bat harritu zaituana?

Atxaga, gaztetan irakurri nebanian.

Euskarazko literatura zela ikusten dozu?

Irakurle aldetik oso gaizki. Idazle aldetik, gaiztiak oso idazle onak datoz; Har-

kaitz Cano, Julen Gabiria...

Idazten jarraitzeko asmorik bai?

Zailena lehenengua da, gero berez urtetzen dau. Azkenengo bi hiru urtetan, inpazientziari buelta emoten ikasi dot, inspiraziñuaren zain egon barik idazten jarraitzen.

Zenbat saltzeko itxaropena?

Nahixao dot itxaropenik ez izan. Liburu honek funtzionatzekotan poliki poliki izango da, ahoz. Baina gaur egun hori oso zaila da kontsumitzen ez dana kendu egiten da eta. Hiru zifrakin konforme.

Hurrengo nobelian gaixa?

Uste dot hor be itzultzaileak agertuko dirala. Uste dot Franko ondorengo Euskal Herrixa fikziora eruateko joku asko emoten dabela itzultzaile figurak.

Momentu honetan ze lotura dauka zu Soraluzekin?

Familixia hemen daukat eta batzuetan etortzen naiz, baina gutxitan. Ama hil zanetik gutxiago. Igual bihar baino gutxiagoko loturia.

Soraluzeko ze leku dozu maitien?

Ia ez daren lekuak; frontoiko eskolak egin aurretiko ortu inguruak, txaria, Maristetako patixua...

Zer dauka Soraluzek Donostiak ez daukanik?

Plaza Zaharra. Lagunekiko tratua. Ez dakit hola izango dan baina hemen badi-rudi gertuago daguala kalia eta, Mendatantetik Txokora jua eta eguneroko harreman hori...

Amodiozko gutun lehiaketata

Asteazkenean banatu ziren 2004ko Amodio Gutunen Lehiaketako sariak. Nagusitan, 5 partehartzaile izan ziren eta Arianne Unamuno eta Eneko Beretxinagaren gutunak izan ziren sarituak. Gaztetxoen mailan 50 partehartzaile inguru izan ziren eta Maite Kintanilla eta Jone Plata izan ziren sarituak. Hona Arianneren gutuna (Maiterena datorren alean argitaratuko dugu):

Hola Karmen txu!

Ezin don pentsatu be egin zenbat denpora pasatu doten kartatxo ziztrin hau eskribitzen. Badakin, eskola zaharrekua gaitun gu, beti erderaz leidu ta eskribidu jonau, baina oinguan ez. Kontu inportantiegixa don erderaz esplikatzeke. Euskeraz esatekua don, esan bihar badon.

Sorpresia hartuko honan, ezta? Egunero-egunero, 3rak puntu-puntuan, kanpaiekin batera, hamar minututik gora heure zain egoten naizen Estazinoko farolian onduan "hiretako, Karmen" ipintzen jonan sobre hau eskuartian hartu donanien. Ba hiretako don ba!

Akordatzen haiz, gure gazte-denpora zela juaten ginan erromeixetara domeka arratsaldetan, soineko elegantiekin, dirudun basarritar guaporen baten bila? Bila eta bila. Ez jaonan baina, eta zela topauko gendunan ba! Orduan be, Keixetako zelaiondoko pagopetik abarketadun zatar eta edar, danak hiri begira egoten zittunan. Hire hanka findantzaxereri; hire gerrialde estuari heldu eta agarraua noiz dantzan egingo amesetan; hire irripar pozgarrixari; hire ezpan gorrixok alkobako izara zurixak noiz zikinduko esperuan; hirekin gariartian zaharrak noiz harrapatuko. Eta batek jakin ze ez ete eben harek desiatuko!

50 urte bihar, Ezoziko Ama Birjinian aurrian Joxe hire betirako gizon hartu ebaia. Gizon zintzua eta langilia, Jaungoikuak inor sortu badau. 50 urte bihar, Ama Birjiniak berak baino negar haundixaguak egin nittuala, ganbarako bedarrondotan. Haura zonan haura ittoina! Akaberarik barekua! Nik esan nostonan

patatia sartzen lan askokin genbizela eta gure aitta zanak aurreko domekan ilundu eta gero etxeratziarren zigorra ipini jostanala. Zigorra Jaingoikuak berak ipini jostanan eguardi haretan! Baina ze egin neikian nik negar besterik?

Bai Karmen. Hi izan haiz euki doten lagunik haundina, eta bajakinat ni heurtzat be izan nonala. Hori gauza edarra don. Baina nere begixok, nere punta-paitzez betetako bihotzak, ez habe lagun bakarrik ikusten, sentitzen. Ez jonat nik mutilik maitte izan sekula, ez jonat gizonik nahi izan etxian; hirekin nahi izan jonat. Eta Joxekin uztartu hintzarian, akabo nere pozak.

Ez don ezer ulertu, ezta? Ez, ez don erreza. Neuri be gaitz egitten jatan. Hi ezagutzia izan don mundura sortu nitzanetik pasatu jatan gauzarik onena. Eta gauzarik txarrena. Gauza bakarra be esan neike; zegaittik eze, zein beste agertzen zonan ba nere amesetetan gabero-gabero? Zein besten arpegixa ikusten najonan eguzkixan bertan goizian jaiki eta bentania zabalduakuan? Zein beste ikusten najonan zelaixan ardi artetik korrika nere besuetara? Zein bestekin ezkutauko nintzonan bedarmeta ostian, gure anai Pedro Marik Sakonetako Pepitakin egitten jonan moduan? Zer ez ete najonan nik desiatuko! Hola zonan gaztetan, eta holaxe don ointxe be.

Hirekin trenbidian pasuan egittera juatia izan don azken urtiotan nere bizitzeko ilusina. Kontuak kontatu, haren eta bestian barri emon alkarri, motxailia baino pelaje huandixauekin ager-



Arianne Unamuno

tzen diran gizonekin barre egin... Besteirik ezin eskatu eta horretxekin konformatu non. Beti konformatu non hire onduan egotia. Izen be, ezinezko maittasunari ezin leikixo esperantzarik eskatu. Oilarrari ezin leikixo arrautzarik ipintzeko eskatu.

Baina hau larregi don neretako. Plazentzian aldapa larregi daguala eta... hire alabiak erregalo egindako etxera hoiala bizi izatera. Nora eta Benidormera! Lekutan daon, Benidorm! Otxandixoko pikupia baino urrinago! Joxekin bihar harutz juaten haizenian, akabo nere pozak, berriro be! Eta hi bare trenbidera juatia, ez hirurak eta hamarrian, ezta erdietan be, Estaziñoko eskilaretan gora etorriko ez haizela sinistuta bizi biharra, eta hiltzia, bai Karmen txu, hiltzia, bixak bat dittun. Hi bare, infernua izango don neretako, hi zeruan haon bitartian. Ez jonat eguzkixa urtetzen berriro ikusi nahi, hire arpegixa ez bajonat gehixago ikusiko. Eta nahixago jonat han goikuakin behingoz kontuak konpondu. Esplikatu bihako jostan zegaittikant sortu ninduan mundura hitaz maittemintzeko.

Ez hari estutu. Ondo egongo non han goixan. Hire zain egongo non han be.

Ahaztu baino lehen: Zorionak eta urte askotarako izan deila. Eta goraintziak Joxeri nere partez.

Julita

Bolia taberna

Etxaburueta
Tel.: 943 75 11 04
20590 Soraluze



Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARRREN@INICIA.ES

Ezoziko Jaiak datorren asteburuan



Datorren ekainaren 19 eta 20an egingo dira aurtengo Ezoziko Jaiak. Aurtengoan bi eguneko jaiak izango dira eta azken urteotako ohitura den moduan, igandean finalista eguna bertan ospatuko da

EKAINAREN 19AN, ZAPATUA

17:30etan Mus eta truk karta txapelketa.
21:00etan herri afaria
22:30etan Bolo txapelketa
23:00etan Morau eta Agotak
24:00etan Izotz
(Goizaldean txokolatada)

EKAINAREN 20AN, DOMEKA

9:00etan Mendi irteera Gilatik
12:00etan Ongi etorria mendizaleei trikitilari eta bertsolariekin.
13:00etan Meza
13:30etan Herri Kirolak
15:00etan bazkaria Ezozi Jatetxean
17:30etan Zenzen txikiak.

Uztailaren 2an egingo da Rk Zulo jaialdia



Datorren uztailaren 2an izango da aurtengo RK Zuloren musika jaialdia Plaza Barrixan. Jaialdia prestatzeko, musikari eta bestelako artistek "azken afari" a egin dute ostiral honetan Arrano elkartearen. Bestalde, aurten antzerki obra bat ere taularatuko du RK Pilla antzerki taldeak uztailaren 16an Gaztetxean. Argazkian, Galipoteko Jaian abestu zuten musikari talde bat.

Treku debatarren margolana saritua

Joan zen maiatzaren 29an egin zen Soralezko margolan lehiaketan, Jose Ignacio Trekuren (debatarra) margolana izan zen garailea. Ondoren Koldo Gonejola (gasteiztarra) eta Francisco Perez (eibartarra) lanak ere saritu ziren. Gazte txoen mailan, Asier Martinez (plazentziarra), Ainhoa San Juan (debatarra) eta Ander Gomez izan ziren sarituak hurrenez hurren. Saritutako margolanak Udalaren esku geldituko dira.



Trekuren margolana

San Juan bezperako sua eta Sorgin Dantza

Urtero moduan, datorren ekainaren 23an egingo da San Juan bezperako suaren inguruko festa Plaza Berrian. Festaren barruan egingo den Sorgin dantzan parte hartu nahi dutenentzako, ekainaren 17an eta 21an egingo dira prestaketa saioak ikastolako frontoian arratsaldeko 20:00etan.

Musika Eskolaren kurtso amaierakoa

Datorren ekainaren 18an Musika Eskolak, kurtso amaierako kontzertua eskeinitako du 22-etan Plaza Zaharrean.

Danborradarako izena

Aurtengo jaietako danborradan izena emateko epea zabalik dago. Abadetxeke buzoian botata egin daiteke.

Urbeltz euskal dantzen jatorriaz mintzatu zen



Juan Antonio Urbeltz dantza munduko aztertzaile ezagunak euskal dantzen jatorriaren inguruko hitzaldia eskeini zuen kiroldegian. Dantzen jatorria, nekazarietako intsektu plagen aurrean egindako dramatizazioan ikusten du berak. Horrekin batera, euskaldunok geure izatearen sustraiak ezagutzearan garrantzia azpimarratu zuen, "horrela bakarrik ulertu ahal izango dugulako nondik gatozen eta nor garen".

Telefona 75 24 09

ARRANO

tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

ELIZpE

h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze



Ana Isabel Uribe bere alaba Arantxa eta Eneko semearekin. Goian Antonio Arizaga bere senar zena eta organu hartzaile izana.

“Garrantzitsuena etxeak jakinaren gainian jartzia da”

Euskal Autonomia Erkidegoa da mundu osoan organu emaile tasa altuena duen lurraldea. Argi dago elkartasun maila oso altua dela. Baina, organo emateari dagokionez, beti dago gehiagoren premia.

ALCER-Gipuzkoa Giltzurrunetako Gaixoen Elkarteak, “Emailerik gabe ez dago transplanterik” lelopean, gizar-tean organu emaile berriak egin eta euren familiak kontzientziatzeko kanpaina hasi azken asteotan. Herrian larunbat honetan jarriko da emaile txartela egiteko mahaia. Kanpoko beste elkartekide batzuekin batera Ana Isabel Uribe izango da mahaian.

Zela sartu zinan ALCER elkartian?

Oin 22 urte nere gizona giltzurrun baten faltan jarri zan. Sei urtian egon ginan zain lehenengo aldian. Ipini zotsen eta birus bat hartu zeban eta kendu egin bihar izan zotsen berriz. Dialisisak etxian egiten genduzen eta hori oso gogorra izan zan. Askok sufritzen da zain zarela.

Bigarren transplantia hiru urtera egin zotsen eta zoragarrixa izan zan. Gabetik goizerako aldaketia. Hogeitalau orduan lokalizatuta egon, eta izugarri zaindu bihar izatetik, bizitza normal bat egitera pasatu zan. Orduan hartzen dan poza zoragarrixa da.

Gero handik ez zan hil, bihotzkuak

“ Helburua, ezezko maila ahalik eta baxuena lortzia da”

emonda hil zan.

Ezagutu zenduan giltzurruna emon zotsana zein izan zan?

Ez, normalian ez da ezagutzen, ze emoten danian borondatez emoten dau eta kitto. Neuk gustora ezagutuko nituzke familixakuak, bakar bakarrik eskerrikasko esateko.

Organu emaile txartela etaratzia-ren helburua zein izaten da?

Gehixenbat organu emaile izateko borondatia adieraztia, gurian danok daukagu. Garrantzitsuena da familixan komentatzia emoteko borondatia daukazula, ze bat hiltzen danian, beti famili-xiak dauka azkenengo berbia eta horregaitik da hain garrantzitsua etxeak borondate horren berri ondo jakitzia. Txartelak lagundu egiten dau momentu horretan zure borondatia zein izan dan adierazten eta hori normalian errespetatu egiten da. Hemen oso jarrera ona izaten da bestela be baina badira kasuak ezezkua emon dabenak.

Ze harrera izaten dozue jentia- ren aldetik?

Urte baten 70 emaile inguru egin ziran eta ordutik aurrera bi urtetik behin egiten hasi ginan. Behin 50 urtetik gorakuekin zaila da. Gazte jentia ber- ruz,

gero eta jarrera hobia dauka eta elkartasun haundikuak dira. Oin jentia, organuak manipulatu edo dituzten edo guztiz hil barik kendu edo holako konturik barik etortzen da.

Jentia-ri ze mezu?

Etortzeko tran- kil mahaira eta batez be komentatzeko etxian. Ni gaur emaile naiz baina baleike bihar neu izatia organu baten biharrian daguana. Borondatia adierazita bakarrik lagundu geinke eta egin bihar genduke hainbeste.

HERRIKO DATUAK

- * GAIXOAK 3 (organu beharrean)
 - * ALCER-eko kideak 9 (gaixoak + senideak)
 - * ORGANU EMAILEAK .. 495 (ALCER-en errolatuak)
- Iturria: Alcer Gipuzkoa (2003-12-31)*

BESTE DATU BATZUK:

Baina organu emailiak egoera kontrolatua- ospitalean- hil behar du organo- a aprobetxagarri izan dadin. Ondorioz, egoera egokian hiltzen diren emaile guztietatik %1 bakarrik dira emaile eraginkorrak.

EAEko organu emate zenbakiak onenari-koak dira: iaz, kasuetatik %6 izan zituzten debekuak EAEn; estatuan % 19 izan ziren bitartean. *(Goienkaria)*

Mendi Astea eta bi eguneko irteera

Dagoeneko hasita dagoen "Mendi Astea"ren barruan, Mendi Taldeak bi diaporama emanaldi antolatu ditu hurrengo bi ostegunetarako. Kiroldegiko Erakusketa Aretoan eskeiniko dira arratsaldeko 20:00etan.

Ekainaren 17an, Adolfo Medinabeitiaren eskutik "Poker de ases. Josemithe." Ekainaren 24an, Xabierrek gidatuta; "Makynley - Bedaly". Finalista eguna ekainaren 20an izango da Ezozin.

Mendi irteera Nafarroara

Bestalde ekainaren 26 eta 27rako irteera ere antolatu dute mendi taldetik. Nafarroako Baztan bailarara egingo dute irteera eta Narbarteko aterpetxean hartuko dute ostatu. Prezioa 15 euro

euro autobusa gehi pentsio erdia 16 euro. Zakua eraman behar da. Izena emateko epea ekainaren 21ean amaituko da.

Soraluzetarrak "Hiru handiak" mendi martxan

Joan zen asteburuan egin zen Zalduondotik Otxandiora bitartean 100 km baino gehiagoko ibilbidea duen "Hiru handiak" izeneko mendi martxa. Aizkorrri, Anboto eta Gorbea mendiak igo zituztenen artean hiru plazentziatar ere izan ziren.

Zigor Alberdi 17:13:00

Gonzalo Ariznabarreta 18:30:00

Jesus Mari Jauntsaras 18:30:00

Bejondeizuela!

Azkenengo baina harro

Joan zen igandean egin zen Gipuzkoako Herri Arteko Herri Kirol txapelketako kanporaketa. Soraluze azkenengo postuan gelditu zen baina Tokan nagusi izan ziren behintzat.



EMAITZAK

Futbola

Soraluze F.T. ren zozketako zenbaki saritua; 9224 da. (687943879)

Esku pilota

Haritz Laskurain
Castañaresen
Leitza - Nalda 22
Del Rey - Laskurain 21

Bergaran
Caffe - Berna 18
Berraondo - Laskurain 12

Zarautzen
Muruamendaraz - Auxkin 10
Baleztena - Laskurain 18

Tolosan
Baleztena - Laskurain 8
Esnal - Eulate 18

Atxotegi eta Aspe

Deba Arroko Txapelketa
Itziarren
22 eta 7 irabazi.
Bergaran
22 eta 8 irabazi (Varelak jokatu zuen Atxotegiren ordez)

Semifinaletako azken partidua datorren astean jokatu dute Bergarako bikotearen kontra Eskoriatzan.

AGENDA

Esku pilota,

Jauregi
Igandean Erreterian.
Asteartean Añorgan.

Futbola

Ekainaren 19an, Ezoziko zelaietan
Atletick eta realzaleen partidua

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

 **MENDIZABAL**

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

 **LAUDIN**

PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g ff: 943 752 150
138 Postakutxa Faxe: 943 752 118
SORALUZE

IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA
URDAITEGIA

 **CERTICAR**
EGINTUTAKO GANADU-HARAGIA
CERTIFICACION DE PRODUCTOS GANADEROS
CARNE DE VACUNO CERTIFICADA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

Manuel Morales “Litri”

“Ni euskalduna eta andaluza naiz, ez dot ez bata ez bestia baztarten”

Torero izena, andaluzen hizkera, eta artia barra-barra ditu Manuelek, edo hobeto esanda, Litrik. Herrixaren maitale honek ez dauka dudarik bera nungua dan esaterakuan: euskal-andaluza edo andaluz-euskalduna. Ia gaur zelan toreatzen daben Pil-pileaneko zezen plazan.

Izen abizenak edadia eta lanbidia.

Manuel Morales “Litri”, 53 urte eta bide garbitzailia.

Gustoko platera?

Bakailaua pil-pilean.

Bene-benetako egi bat.

Egixa daukazula pentsatzia, baina benetan ez eukitzia. Inork be ez dauka egi osua.

Irla desertu batera zer eruango zenduke?

Ura, nobela on bat eta zu zeu. Ja, ja, ja!

Ta nobela bat aukeratzekotan, zein?

El Comedido Hidalgo, Galárena.

Irrikaren bat.

Nere ilobia, terremoto bat da, zelako artia eta klasia daukan!

Soraluzeri zer falta jako?

Ganorazko komun publiko batzuk, ezinduendako be egokixak diranak; aisiraldirako zeozer, zinia edo; gaztiendako zeozer...

Gauza asko falta jakoz, baina nik herri hau ez neuke beste batengaittik be aldatuko.

Andaluziarra ala euskalduna?

Ni euskalduna eta andaluza naiz, ez dot ez bata ez bestia baztarten. Hemen andaluza deitzen doste eta han euskalduna eta nik bi kulturak ezagutzen dittut.

Hautzaroko oroitzapen bat

Guadalquivir ibaia, han ibiltzen ginan igarixan eta arrantzan.

Zergaittik deitzen dotsue Litri?

Garai baten elektrizista moduan lan egitten nebalako. Sevillan elektrizistari Litri esaten jakue. Honekin lotuta txiste bat be badakit.

Kontauko doskuzu, ezta?



Bertso Begiz

*Manuel andaluza
zelako alia,
“Litri” esaten dotse
ah ze detailia.
Pentsatzen hasi eta
aukera bi dia,
elektrizista edo
toreatzailia,
gure “Litri”n kasuan
adarjotzailia!*

Beltza

(Doinua: Bizkaiko aberatsenak)

Manuel Morales “Litri”

Ijittu bikote bat hor dabil landatik zihar eta hor nun, zezen beltz-beltz bat ikusitta, igotzen diran telefonuan poste batera. Ijittu andriak, bildurtuta, gizonari jeitsi eta zezenari pase

batzuk emoteko eskatzen dotsa, holan handik urtetzeko. Gizonaren ezezkoa ikusitta andriak galdetzen dotsa: *baina zu ez zara “el litri?” Bai, el litrizista.*



Lakuesta

Optika

Ikusmen arazozen frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 17 82 GIPUZKOA

Argazki zaharra



Ohartxoa: Aurreko aleko argazki zaharrean falta ziren izenak ondokoak dira: Goiko ilaran: Marcelino Garate (4.), Juan Argate (5.), Juan Hernaltes (6.), Antonio Leturiondo (7.). Erdikoa: Juan Iaskurain (1.), Florentino Arizaga (2.), Victor Treviño (4.), Ramiro Larrañaga (11.). Beheko ilaran: Sabin Iriondo (1.), Juan Mari Oregi (4.), Julen Iñurrieta (6), Carlos Maiztegi (7.).

1973ko Euskal Jaia

1 973. urteko Euskal Jaixetan Soraluzeako dantza taldeko gazte-txueri zine zaharraren aurrian etaratako argazkixa. Estibaliz Begil, Gonzalo Gallastegi, Joseba Gorostidi, Eduardo Oregi, Rafa Idigoras, Josetxo Zubiaurre, (...), Alex Alberdi, Xabier Alberdi. Jose J. Mero, Gorka Zubiaurre, Alberto Gallastegi, J. Martin Altuna, Inazio Idigoras, Ane M. Zuloaga, Gorka Arriaga, Mari Feli Akizu, Susana Bolunburu, Eider Mazorriaga, Ainhoa Mendia, Mikel Unanue, Inma Alberdi, Ubane Uzin.

Joseba Gorostidik lagatako argazkia

Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan honetan?

Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

DEITTU
943 75 13 04 ra

Aurreko alean...



...eta irabazlea: Maria Pilar Agirrebeña

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81



FER.

S.A.

Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es



LIMPIEZAS TREJO S.L.

Garbiketa Industrialak

Errekalde, 30 behea
Telf.: 943 75 25 57
Fax: 943 75 25 56
20590 SORALUZE



OITXURRI

tel. 605768151
GABOLATZ
28 BEHEA

**ARDORIK ONENAK
OITXURRIRENAK!**

urteko ardoak - 2 € tik aurrera
Balagu
BASOCO
mitarte
f. fdez gomez



kriantzak - 4,50 € tik aurrera
h. de don tomas
solaguen
valserrano
pierola

ERRESERBAK - 9,50 € tik aurrera
valserrano
solaguen
pierola



"Eman izena Etxebiden!"



**Saciako babes
ofizialeko etxebizitzetan
izena emateko
Euskadiko Kutxan
duzu aukera!**


etxebide



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

ETXEBIZITZA ETA GIZARTI
GAIETARAKO SALA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES

Zurekin elkarlanean


**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Santa Ana ,18
Telefonoa: 943 751 238
Faxa: 943 753 103
20590 Soraluze/ Gipuzkoa

EZOZIA JATETXEA

*Zatoz eta gozatu
gure jakiak!*



*EZOZI jatetxean bazkari eta afaririk
ederrenak preziorik onenean.*

*Eguneroko menua
eta aukera zabala kartara.*

Ezoz Auzoa Tel: 943 751001 SORALUZE